



Goizeko lehen argiarekin ama Loka irtetzeko gertu dago. Egualdi ona izango dan itxura du eta uste du heldu dala denbora hiru txitatxoak berarekin eramatekoa oilatoki inguruko zelaie-tatik haruntzago dan mundua ezagutu dezaten.

Bere hiru txikiekin arro da ama Loka. Atsegin-
garriak dira Moko eta Pipi, urrea bezin hori
dituzte beren luma bigunak bi txitatxoak, belar-
tzan alai dira, ariniketan eta mokoka, maiz lilu-
raturik begiratzten dituztela zelaiko lora politak.
Pufi, beren anaia, ordea, gaua bezin beltza da
bere izatez urduriagoa eta ama beti arduratan
edukitzen duena. Esan guztiak alperrik dira:
—Ez egin hori; ez egin hura—, berak beti ez
entzunarena egiten du eta
bihurria danez, azkenerako
berak nahi duana
egiten du.



Hobeto zaintzeko, batez ere oilatokiko orbel eta harri artean dabilenean, hain beltza danez eta deieri inoiz jaramonik egiten ez diona gainera, bere amak txapel gorria jarri zion; horrela erraza bait da hurrutira ere ikusi ahal izatea, bere kezka urduriak eramanik, arkitzen duen guztia ikusiz jostatzen dan artean.

Basora ibilaldia egitera joateko amak hartu zuen erabagiaz Pufi liluraz beterik dago. Ze polita izango dan oilatokitik kanporako guztia! Zenbat gauza harrigarri ez ote ditut ikusiko! Pufi-ri lehe-



nengoz berebiziko aa!
harrigarria kattalingorri
ikusteak eragin zion; egu
txiki eta mota belzdun



zomorro gorriak azaldu zuan gure
Pufi. Bere gogoz anitz denboran geldi-
tuko zan berari begira, baina amaren
deia entzun zuan, eta, gogotxarrez
baina obeditu zuan.



Ez zan gelditu, ordea, bere protes-
tatzat sentipenezko "pío, pío" ga-
rratzak agertu gabe eta ahopean,
berekikoz:

—A! zer nazkagarria amaren ondo-
rean errenkadan joan behar hau
inguruan hainbeste gauza polit
ikusgarri daudelarik!

Eta ezer egiten ez duanaren gisa,





taldeari jarraituko balio bezala, poliki-poliki, Pufi atzeratuaz joan zan bakarrik gelditu zan arte. Bere aurrez-aurre lo-erazlez arkitu zuan gari sailari adi gelditu zan.

Galburuak iha heldurik gozo-gozoak zeuden eta Pufi alorretan sartuta sabela betetzen hasi zan bere ama eta anaitxoekin ezertarako oroitu gabe, eta beste hauek alde guztietan bila ari ziren behar bada nahigaberen bat gertatu zaiola pentsaturik.



Eta, Pufi, garia janaz asetu zanean,
basoan zehar abiatu zan eta haritz
zahar baten itzalpean gelditu zan
txorien txorrotxio kanta en-
tzunaz.

Orduan ikusi zuan berakin ohar-
turik egoan kuitxo bat; musinka
eginaz alde zuan handik. Benetan
zoriontsu arkitzen zan Pufi.

Munduko jabe sentitzen zan; urrats bakoitzean gauza berri liluragarriak ikertzen zituan; hain zuzen ere bere biziko unerik onena arkitu zuan hura.

Belarrik apalenak ere bere begi argi eta kezkatiez ikertuaz. Kirkerren jauzia, zomorroen egada, mamutxen surmurra, basoko edozein lora aski zan bera arduraz jartzeko.



Goiz hartako eguzki sargorian batetik bestera ariniketan, azkenerako egarritu zan Pufi. Baina non arkituko zuan berak ur tanta bat? Marraskillo bati galdetu zion, nahikoa deskonfiantzaz, eta erantzunik gabe sartu zan bere oskolean. Zorionez laster entzun zuan uraren marmarra hurbil egoan errakabatena eta ur gardenetara hurre-





ratu zan. Asetu arte edan
zuan eta berriz ekin zion
ibiltari. Handik hurrutira ga-
be arkitu zuan labea beza-
lako gauza bitxi bat.
Inoiz ez zuan holakorik iku-
si. Arraultza handi baten
itxura zuan etxexo harek be-

re kezka zirikatu zuan, eta bi aldiz
pentsatu gabe burua sartu zuan
etxetxo haren atetik. Jakin izan balu
inoiz ez zuan egingo. Erleen guda-
rozte osoa abiatu zan txita ausarta-
ren gainera ankerki ezten
zorrotz mingarriekin.



Pufi gaixoa ariniketan abiatu zan ihesik, eta erla haserratuak jarraika.

Ihesari eman zionean galdu zuan bere txapel gorria eta erlak burura jauzi ziran erruki gabe sistatzen eta hain mingarriak ziran ezten sistadak, erotu behar zala uste zuan.

Iritxi zan ibaira eta bere burua bota zuan; horrela bakarrik libratu ahal izan zuan erla-pila



haserratu harengadik. Ur freskoak beratu zizkion miñak eta laguntza eske deiadarka hasi zan, ama!

Ama Lokak entzun zituan bere aihotsak eta lehenbait lehen abiatu zan laguntzera. Egia esan, bere ama agiraka egiteko gertu joan zan hain bihurria eta hezikaitza zalako, baina hain erru-





karri ikusteaz ez zan ausartu hasarre egitera eta bere egalpean eztiki hartu zuan.

Pufi-ri igaro zaizkion erla eztenen miñak eta bere txapel gorria arkitu zuan, baina ordurako bere lepotik ikasi zuan amari obeditu gabe berari zegokiona egitea ez zala ona.

Horregaitik, aurrerakoan txita ona eta entzunekoa izatea agindu zuan eta inoiz sekula santan ama Loka-ri atsekaberik ez ematea.